



Lau auzotan izan ezik, beste guztietan irabazi du Elorzak

GARAIPENA ▶ PSE-EEK hiriko 13 auzotan irabazi du udal hauteskundeetan

AUZOAK ▶ EAE-ANV Parte Zaharra, Añorga eta Igeldon, eta PP Erdialdean irabazle

ZUBIETA ▶ Hauteskundeekin batera zubietarrek ezezkoa eman diote errauskailuari ▶ 2,3



Odon Elorza, igande gaueko ekitaldian oso pozik azaldu zen emaitzekin. NAGORE IRASTORZA

BIHAR EZ DA HITZA-RIK IZANGO

Udal eta Foru hauteskundeetako emaitzak plazaratu ahal izateko, Hitzak igandean lan egin eta zenbaki berezia argitaratu zuen atzo.

Hori dela-eta, bihar ez da HITZARIK argitaratuko. Etzi izango gara berriz zuekin.

MUSIKA ▶

Instep rock taldeak irabazi du Piraten I. Musika Lehiaketa

Saritzat diskoa grabatuko dute eta Aste Nagusian joko dute ▶ 4

SASKIBALOIA ▶

Donostiako Atletiko-UPV Bigarren Mailara igo da

Nesken saskibaloia taldea, Leon faboritoari irabazita igo da ▶ 6

EUSKARA ▶

Ekainaren 2an izango da Mintza Eguna

Euskal Herriko mintzalagunek egitarau zabala izango dute ▶ 5



Diseinuan eta kreazioan ahalmenean oinarritutako heziketa

■ DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA
ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA : 2 Ikasturte / 2000 ordu
SARRERA : UBI · LH II · IEE II · edo HSAOL BATXILERGOA gainditua

■ ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA
ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA : 2 Ikasturte / 2000 ordu
SARRERA : 2. BBB · LH I · IEE I · edo DBH gainditua



Heniz Paselekua, 95
20008 Donostia
Gipuzkoa
Telf 943 310 879
Fax 943 310 875
www.ceinpro.es



EMAITZAK ▶

Matematikak alde ditu Elorzak, eta eskura dauka gehiengo absolutua lortzea

EAJren emaitza kaskarrek ez diote alkate izateko inongo aukerarik utzi Ezeizabarrenari; abstentzioa 14 puntu igo da duela lau urtetik hona



Odon Elorzaren zerrendak eta Duñike Agirrezabalaga buru duen Ezker Batua-Aralarrek osa dezakete Udala berriz ere. N. I. / R. P.



Agustín Rodríguez, atzoko prentsaurrekoan. AMAIA PORTUGAL

Gainontzeko alderdiekin bilera egin nahi du EAE-k

Donostiako Eusko Abertzale Ekintzaren kideak pozik agertu ziren lortutako emaitzekin, eta boto kopuruari zein portzentaiei dagokien duela lau urteko emaitzak hobetu dituztela azpimarratu zuten. Horren harira, udaletzeko eskaileretan egindako prentsaurrekoan —ez zieten aretoa erabiltzen utzi—, gainontzeko alderdiekin hitz egiteko asmoa agertu zuen Agustín Rodríguez alderdiko zerrendaburuak.

EAEk lortutako botoak —ia 11.000; hiru zinegotzi izango lituzkete Udalean zerrenda baliogabetu ez balute— «balio handikoak» direla esan zuen Rodríguez, eta horri lotuta, gainontzeko alderdiei «guri dagokigun ordezkariak errespetu dezaten» eskatuko dietela iragarri zuen.

Rodríguezen arabera, «hurrengo egunetan elkarriketa saioa zabalduko dugu Udalean ordezkariak dauden alderdiei guztiekin».

EAEren zerrendaburuak esan zuenez, alderdiak Donostian, nahiz Hego Euskal Herri osoan lortutako emaitzek «dilegalizatzeko politikak kale egin duela» erakusten du. «Oztopo guztien gainetik agerian geratu da milaka eta milaka donostiarrek Ezker Abertzalearen proiektu politikoa babesten dutena», gaineratu zuen Rodríguez.

Era berean, kanpaina he-dabideetan antolatutako eztabaidetan «Guantanamo politikoa» izan dela salatu zuen Rodríguez, eta indar polizialek «botoak kendu» dizkietela ere esan zuen. «Hau-



Agustín Rodríguez, atzoko prentsaurrekoan. AMAIA PORTUGAL

teskunde hauek ez dira demokratikoak izan inondik inora, guztiok ezin izan dugulako baldintza berberetan lehiatu», azaldu zuen.

Bestalde, Rodríguez donostian EAEk jasotako botoak

eskertu zituen, eta agindu bat egin zuen: «Donostia euskalduna eta ezkertiarra eraikitzen ari gara, apustu garbia egin dugu. Honakoa prozesu demokratikoaren ariketa praktikoa eta aktiboa izan delako».

X. ETXABE / A. PORTUGAL

Hamaika gehi hiru, berdin hamalau. Matematikak ez dute gezurrik esaten, eta Odon Elorzak kanpaina hainbestetan eskatu duen gehiengo absolutua lortzeko egin behar duen eragiketa sinplea da oso. 27 zinegotzi ditu Donostiako Udalak; horietatik 11 lortu ditu PSE-EEK, eta beste hiru Ezker Batua-Aralar koalizioak. Horixe dago koxka.

Igande gauean hauteskunde emaitzen berri jakin ostean, pozez zorrotzen zegoen Elorza. Eta ez da harritzekoa. 16 urte darama alkate —aurreko lehene aldiz bozkatzeko aukera izan duten donostiar guztiak aurreko alkatea zein zen ere ez dute gogoan—, eta hala ere, haren agintaldiak ez du agortzen ari den zantzurik eman: hamar zinegotzi izatetik hamaika izatera igaro da. Ezin ahaztu, noski, duela lau urte baino boto gutxiagorekin irabazi dituela hauteskundeak, aurtengo abstentzioa ikaragarria izan baita: duela lau urte %31,23koa izan zen, eta aurreko %45,14koa. Alderdi guztiek, irabazleek zein galtzaileek, badute zertan pentsatu.

Hain zuzen ere, abstentzio handi hori kontuan hartuta, zalantzarik gabe Ezker Batua-Aralar koalizioak izan du gorakada handiena hauteskundeotan, Baga Bogaren emaitzak hobetu dituen EAERekin batera. Gehiago ala gutxiago, Udaltzaren ordezkariak izango dituzten alderdi guztiek egin dute behera boto kopuruari dagokionez, EB-Aralarrek izan ezik. Duñike Agirrezabalagak errauste plantaren kontra izandako jarrera irmoak izan dezake zerikusirik honetan. Baina, Elorzak *traizio* egin zionean Udala Gobernutik atera zen arren, ez dirudi orain, hiru zinegotzirekin, alkatearen ondora itzultzeko eragozpen handirik izango duenik.

Akordioaren inguruko zalantza guztiak datozen egunetan argituko diren arren, EB-Aralarrek, «programan esandakoari zentzudun izaten jarraituko» duela eta bere burua ez duela «edozein eserleku lortzeko salduko» azaldu zuen atzo Duñike Agirrezabalagak, lortutako emaitzekin pozez zorrotzen zegoela ezkatuta ezinik.

EAJ-k, koaliziorako tarterik ez

Zalantzarik gabe, Gipuzkoa osoan bezala, EAJ izan da galtzaile nagusia hauteskundeotan. Igandean Xabier Ezeizabarrenak garrantzitsutzat jo zuen bere alderdiak aurrerago agintaldiko bost zinegotzietan eustea,

AUZOAK ▶

la auzo guztietan eskuratu ditu PSE-EEK boto gehien

Añorgan, Erdialdean, Igeldon eta Parte Zaharrean izan ezik, gainerako auzoetan nagusitu da Odon Elorzaren alderdia

RAUL PEREZ

baina mezu hori ez dator bat kanpainan egindako adierazpen baikorrek. Hain zuzen ere, EAJren emaitza kaskarrekin alkatateko koalizioa osatzeko ia aukerarik gabe utzi dute Ezeizabarrena. Bai berak eta bai Jaione Arratibel EAJren hautagaiak esan dute Eusko Jaurlaritzako hirukoa osatzea izan daitekeela haien zatitza aukera garbiena. «Alderdi guztiekin hitzartzeko prest gaude, PPekin izan ezik. Akordioak sortzerako orduan, alderdi kide batzuk proposatzen zuten, Eusko Jaurlaritzako hirukoa gainontzeko erakundeetan ere sor zitekeen. Hitzartzerako garaian, dena den, zentzudunak izan behar dugun gure alderdiko ideekin», zehaztu du Jaione Arratibelek hauteskunde bideramuneari.

EAJ, EA eta EB- Aralar batuta, aldiz, ezingo liokete alkatetza kendu Elorzari: 11 zinegotzi 10 zinegotziren kontra. Gainera, estrategikoki EB-Aralarri askoz ere komenigarriagoa zaio irabazleekin ituna egitea galtzaileekin baino.

EAJrentzat Gobernuaren sartzeko aukera bakarra PSE-EE-ekin ituna egitea litzateke, eta garbi dago EB-Aralarren aukera askoz ere erosoagoa dela Elorzarentzat. Eta aukera guztiak aztertzen hasita, Elorzak behin eta berriz errepikatu bezala EAJ eta PP ituna egiten saiatuko balira ere, motz gertatuko lirateke.

EA eta EB-Aralar, koalizioa osatzeko hautagai nagusiak

Hain zuzen ere, bere zinegotzien erdia galdu duen Eusko Alkartasunak aukera handiagoa du Gobernuaren sartzeko EAJk baino. «Inkestek emaitza kaxkarrak aurreikusten zizkiguten, zinegotzirik lortuko ez genuela zirotelako», dio Jaione Arratibelek lortutako emaitzekin pozik. «Aurreko bi agintaldietan EAJrekin batera aurkeztu ginen koalizioan eta orain, gure kasa aurkeztea erronka berria zen guretzat hirian eta Gipuzkoan; pozik gaude lortutakoarekin parte-hartze eskasak botu gehien lortu dutenei lagundu badie ere».

Izan ere, ezin da baztertu EB-Aralarrek gain, EA ere koalizioan sartu nahi izateko Elorzak, are lasaiago gobernatzeko. Horregatik, agian horixe da koalizioen inguruan argitu beharreko misterio handiena: hirian duen presentzia handiagotzen saiatzeko, PSE-EEren gobernuan sartuko al litzateke EA? Edo leial izango zaio EAJri? Datorren ekainaren 16an, alkatate eta zinegotzien kargu-hartze egunean, ikusiko dira hitzarmenen lehen zantzuak.

Aieten, Altzan, Amara Berrin, Amara Zaharrean, Antiguan, Bidebietan, Egian, Grosen, Ibaetan, Intxaurren, Loiolan, Martutenen eta Ulian. Toki horietan guztietan jaso ditu PSE-EEK boto gehien. Oso leku guztitan izan dira gai beste alderdiak PSE-EEK baino boto gehiago eskuratzeko. EAE-ANV nagusitu da Añorgan, Igeldon eta Parte Zaharrean eta PPk bildu ditu boto gehien Erdialdean. Añorgan, Igeldon eta Parte Zaharrean ere PSE-EE ez da boto gehien jaso dituen alderditik aparte ibili; bigarren alderdia izan da. Alderdi handiena Altzan izan du PSE-EEK. Ia 3.000 botoren alde ateratzen dio bigarrenari, EAE-ANVri: 4.089 jaso ditu PSE-EEK eta EAEk berriz 1.109.

Aurreko hauteskundeekin alderatuta, auzo gehiago bereganatu ditu Odon Elorzaren alderdiak. Hala, 1999an bederatzia izan zuten zituen boto gehien, 2003an 11 auzotan eta



Amara Berriko hauteslekuetako bat. IBON GAZTAÑAZPI

hereneguneko hauteskundeetan 13 auzotan. Antigua eta Ibaetan, EAJ-EA koalizioa gailendu zen 1999an eta 2003an, baina aurreko PSE-EEK irabazi du. Ibaetan, EAJ eta EAJren bo-

toak bat eginda ere (1.511) PSE-EE gailentzen da (1.718). Antiguan, aldiz, EAJ eta EAJren botoak elkartzuz gero (1882), PSE-EE bigarren alderdia litzateke (1.771).

BOTO GEHIEN NON ▶

PSE-EE

13 auzotan. Aiete, Altza, Amara Berri, Amara Zaharra, Antigua, Bidebieta, Egia, Gros, Ibaeta, Intxaurren, Loiola, Martutene eta Ulia.

EAE-ANV

Hiru auzotan. Añorga, Igeldo, Parte Zaharra.

PP

Auzo batean. Erdialdea

PPk, bere aldetik, duela lau urte bezala, Erdialdean irabazi du. Eusko Alderdi Jeltzalea, aldiz, ez da inon gailendu. 2003an, Parte Zaharrean, Antiguan, Igeldon, Añorgan eta Ibaetan izan zen zerrendarik bozkatuena EAJk eta EAJ osatutakoa.

Ezker abertzalearen gorakada ere aipagarria izan da. Hala, 2003an ez zen inongo auzotan zerrendarik bozkatuena izan, eta herenegun Añorga, Igeldon eta Parte Zaharrean. Altzan, Egian, Intxaurren eta Martutenen, beste aldetik, bakarrik PSE-EEK lortu ditu EAE-ANV-k baino boto gehiago.

EB eta Aralar koalizioari erreparatuta, 2003an, azkenaurrekoak eta azkenak izan ziren auzo guztietan, hurrenez hurren. Udal hauteskunde hauetan elkarrekin aurkeztu dira bi alderdiok, eta Eusko Alkartasunari, PPri eta EAE-ANVri aurrea hartu diote zenbait auzotan.

ZUBIETA ▶

EAE-k eta EB-Aralarrek boto gehien Zubietan

Errauste plantaren aurka egin du %99,58ak

ERREDAKZIOA

Donostiako Udalaren baitan dagoen Zubietako eremuan, Eusko Abertzale Ekintzak eta Ezker Batua-Aralarrek lortu zituzten boto gehien, alde nabarmenez. Partaidetza %59,9koa izan zen —133 lagunek hartu zuten parte—. Horietatik 68 lagunek eman zuten Eusko Abertzale Ekintzaren aldeko botoa, 42k Ezker Batua-Aralarren aldekoa, 11k egin zuten EAJren alde, zazpik EAJri eman zitoten botoa, lau lagunek PSE-EEri, eta batek PPri.

Emaitzak ikusita, zubietako

rrrek nabarmen egin zuten errauste plantaren aurkako jarrera agertu duten alderdien alde. Hain zuzen ere, hauteskundeak baliatuz, errauste plantaren inguruko erreferenduma ere egin zuten Zubietako osoan —Usurbilgo nahiz Donostiako aldeetan—. 243 lagunek hartu zuten parte guztira erreferendumean, eta errauste plantaren aurkako jarrera irmoa erakutsi zuten: 242 lagunek egin zuten errausketaren kontra, eta batek alde. Hau da, botoa eman zutenen artean, %99,58k ezezkoa eman zion errausketari.

EHNA ▶

75 tokitan eman ahal izan da botoa EHNArekin

ERREDAKZIOA

Bai Euskal Herriari Herri Ekimenak EHNA Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren erabileraren inguruko datuak eman ditu. Bai Euskal Herriari Herri Ekimenak azaldu duenez, «milaka herritarrek botoa eman ahal izan zuten EHNArekin igandean; ehunka mahaletan errespetatua eta onartua izan da. Hala ere, inoiz baino oztopo gehiagori egin behar izan zioten aurre, besteak beste mahaletako lehendakariak jasotako zirkularrengatik, eta PP eta PSOEko ordezkarien presio eta mehatxuek».



Herritar bat EHNArekin botoa ematen.

Herri ekimenak zabaldua ko informazioaren arabera, Donostian 215 hautes mahaletatik 75etan EHNArekin botoa eman ahal izan zuten herritarrek, beste 93tan ez zuten EHNArekin botoa ematerik izan, eta gainerako hautesmahaietan zer gertatu zen zehaztu gabe dute oraindik.

MUSIKA ▶ PIRATEN MUSIKA LEHIAKETA

Instep taldea irabazle

Oiartzungo musika taldeak irabazi du Piraten I. Musika Lehiaketa



Oiartzungo Instep taldeak irabazi du lehiaketa.

ERREDAKZIOA

Oiartzungo Instep eta Donostiako Xikinkei eta Supertrooper taldeen arteko lehia oiartzuarrek irabazi zuten joan den larunbatean. Piraten I. Musika Lehiaketa Loiolako gaztetxean jokatu zen eta hiru taldeek zuzenean kontzertua eskaini zuten.

Instep taldeak disko bat grabatuko du Kaki Arkarazo-

ren Andoaingo Garate estudioetan eta Aste Nagusian piraterik antolatuko duten kontzertuan parte hartuko du.

Guztira, 42 taldek aurkeztu zituzten beren lanak lehiaketan parte hartzeko, eta hiru iritsi ziren finalera. «Lehiaketara aurkeztu ziren 42 taldeek irabazi dute funtsean eta beraien alde egingo dugu Parte hartzeruntz, abant egiteko», esan dute piratek.

ERAKUSKETA ▶



Euskaraz eta gaztelaniaz daude Tintinen komikien panelak. ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA



Tintinen komikiak eta zientzia uztartuta

‘100 zientzia urte Tintinekin’ erakusketa harrera ona izaten ari da; zientzia eta teknologiararen hurbiltzea du helburu

NAGORE IRASTORZA

Tintin pertsonaje ezagun eta kuttunaren sortzailea —Hergé— jaio zenetik ehun urte betetzen dira aurten, eta hori aprobetxatuz, Zientziaren Kuxaguneak 100 zientzia urte Tintinekin erakusketa zabaldu berri du. Tintinen komikien bidez zientzia eta teknologiararen lotutako zenbait esperimentu, aurrikuntza eta fenomeno naturalen berri ematen dute panelek.

Astebete darama erakusketak eta oraingoz, harrera oso ona izan duela adierazi du Elena Rosales Kuxaguneko komunikazio arduradunak. «As-

teburuan batez ere, jende ugari hurbildu da erakusketaren inguruko jakin-minak piztuta». Marrazkiak izan arren, ez dago espresuki haurrei zuzendua, eta asko dira hurbildu diren helduak ere. «60ko hamarkadan Tintinen komikiak irakurtzen zituen lagun asko hurbildu da eta gustura ikusi dute erakusketak».

Meteorito bat ere ikusgai jarri dute eta 25 panel koloretsuek jendea erakartzen dute. Baina kuxkuxean ibiltzeko ez ezik, erakusketak didaktikoa izateko asmoa ere badu. «Tintinen komiki originalak jarri ditugu eta ondoan, zientziaren inguruko galdera-erantzunak

planteatu ditugu. Pertsonajeek beraiek ematen dute erantzun hori, bakoitzak bere modura», dio Rosalesek.

Panel guztiak euskaraz zein gaztelaniaz daude.

Erakusketa modu iraunkorrean jarri dute eta udara bukaera arte luzatzea erabaki dute. Beraz, irailaren 30 arte egongo da irekita, asteartetik igandera.

Erakusketarekin batera, komiki ikastaroa antolatu dute Kuxagunean bertan.

Tintin, Haddock eta Tornasol irakaslearen abenturak eta zientzia azalpenak ezagutzeko aukera aparta eskaintzen du erakusketak.

DATUAK ▶

Izenburua. 100 zientzia urte Tintinekin.

Erakusketa. Tintin komikien tirak eta zientzia eta teknologiararen lotutako esperimentuak paneletan.

Lekua. Zientziaren Kuxagunean.

Noiz arte. Irailaren 30 arte.

Ordutegia. Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 19:00etara; larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 19:00etara.

garenak X2 izateko

lortu ezazu
hitzaren harpidedun
berri bat

eta opari bana
jasoko duzue



aukeratu
gustukoen
duzun oparia*

*harpidedun berria maiatzaren 31 baino lehen
ekartzen dutenentzat.

hitza

BEZERO ARRETA ZENBAKIA:

902 820 201

astegunetan: 08:30 - 20:30
larunbatetan: 09:00 - 13:00



Komiki koloretsuak eta erraz ulertzekoak dira.

EUSKARA ▶ MINTZA EGUNA

Mingaina dantzán

Euskara ahotan, egun pasa ederra egiteko aukera ematen du Mintza Egunak; larunbatean izango da

ERREDAKZIOA

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak izan zen aintzindari 1993an Mintzalaguna sortzen. Euskaraz naturaltasunez moldatzen direnak eta euskararekin zailtasunak dituztenak eta landu nahi dutenak biltzen ditu ekimen honek eta asko dira ekimen honetan parte hartu dutenak urteotan. Euskara praktikatzarekin batera, elkar ezagutzeko aukera ere ematen du ekimen honek. Mintzapraktika egitasmoak bultzatzeko asmo honetan, Bagerak eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Lehen Mintza Eguna antolatu zuten iaz Iruñean. Aurten, bigarren aldiz ospatuko dute Mintza Eguna. Hitzordua Donostian jarri dute, larunbaterako, ekainaren 2rako.

Bi helburu ditu Mintza Egunak. Batetik, mintzapraktika egitasmoarekin lotutako helburua. Alegia, mintzapraktika egitasmoa hedatzea. Honela, egitasmoan parte hartzen dutenek mugimendu bateratu ba-

ten kide direla ikusteko eta sentitzeko aukera izango dute egun honetan. Bestetik, honelako egitasmorik ez duten herrietan mintzapraktika programak sortzea.

Helburu garrantzitsuak, zailtzarrik gabe, baina festa giroa eta alde ludikoa ere baditu egun honek. Mintzalagunak elkar ezagutzeko eta ikasturteari bukaera ederra emateko aukera eskaintzen du, ibilaldi eta bazkariaren bitartez. Bide batez, Donostiako txokoak eta pasadizoak euskaraz ezagutzeko aukera izango dute Mintza Egunera hurbiltzen direnek.

Bulebarreko kioskoan ekingo zaio Mintza Egunari 11:30etatik aurrera, bertsolariak lagunak. Segidan, ibilbide gidatua egingo dute Parte Zaharrean barrena eta 12:30etarako, hamaiketakoak izango da Parte Zaharreko Arrano Beltza euskal tokiak prestatuta. Bazkaria izango da eguerdian eta ondoren, sari banaketa, eta kantatu, dantatu eta mintzapraktika egiteko aukera eskainiko dute.

HELBURUAK

Mintzapraktika egitasmoa hedatzarekin batera, herrietan indartzea bilatzen du egunak

Mintzapraktika egitasmoak Euskal Herrian

1993. urtean Bagera Euskara Elkarteak lehenengo Mintzalaguna sortu zuen, eta 1996an egitasmoa Euskal Herrian zabaltzen hasi zen. Bi urte geroago, topaketak antolatu zituzten



Iruñean ospatu zen iaz Mintza Eguna. ENeko AIERBE

eta Mintzapraktika batzordea martxan jarri zuten.

2005. urtean, berriz, Topaguneak proiektua martxan jartzeko metodologia jasotzen zuen eskuliburu argitaratu zuen. Mintzapraktika programen inguruko jardunaldiak antolatu zituzten iaz Durangon eta guztira, 110 lagunek parte hartu zuten. Azkenik, iaz ere, lehen Mintza Eguna antolatu zuten Iruñean.

Egun, mintzapraktika egitasmoak Euskal Herriko 38 herri

eta eskualdetan gauzatzen dira eta guztira, 1.801 lagunek parte hartzen dute. Gipuzkoan, esaterako, 13 herritan abian jarri dituzte egitasmoak. Jende gehien biltzen dutenak hirietako dira: Donostian, esaterako 185 lagunek parte hartzen dute; Iruñean eta Bilbon 175ek.

Festa giroan eta euskara ardatz hartuta, mingaina dantzari jarri eta egun ederraz gozatzeko aukera paregabea izango da, beraz, larunbatean Donostian.

EGITARAUA ▶

11:30. Ongi etorria Bulebarreko kioskoan, bertsolariek lagunak.
12:00. Ibilbide gidatua Parte Zaharrean barrena.
12:30. Hamaiketakoak, Arrano Beltza euskal tokiak prestatuta.
14:00. Bazkaria.
Bazkalostean. Sari banaketa eta kantatu eta dantzatzeko aukera.



Giro ederra izan zen iazko egunean. ENeko AIERBE

Makina Erremontaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

Región de Navarra

HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK

BERRIKUNTZAK 2007/08 ikasturtean:

Goi-Mailako Ziklo ELEANITZAK:
euskara/gaztelania/ingeleza

PROIEKTUETAN oinarritutako irakaskuntza

15 urteko esperientzia

Erdi-Maila A/D ereduak

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea erabideen instalazioa eta mantentimendu elektromekanikoa

Goi-Maila A/D ereduak

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantentimendua

... informa zaitez!

Maiatzak 30, 19:00etan eta ekainak 2, 11:30ean

Ate irekiak:

IMH, Azkue Auzoa, 1 - EL GOIBAR - Gipuzkoa - Tel.: 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

FUTBOLA

Espainiako Lehen Maila.

Osasuna-Reala 2-0

Sailkapena ▶

1. Real Madril 72 puntu

18. Reala 33 puntu

Espainiako 2.B Maila.

Reala-Eibar 3-1

Sailkapena ▶

1. Eibar 71 puntu

7. Reala 61 puntu

Espainiako 3. Maila.

Elgoibar-EHU 0-1

Sailkapena ▶

1. Zalla 76 puntu

19. EHU 31 puntu

Jubenilen Espainiako Kopa.

Reala-Betis 3-1

Preferentea.

Pasajes-Martutene 4-1

Zestoa-Berio 1-0

Sailkapena ▶

1. Zarautz 71 puntu

6. Berio 52 puntu

17. Martutene 33 puntu

Bigarren Erregionala.

Igoera fasea, 2. multzoa.

Gazteak-La Salle 3-2

Sailkapena ▶

1. Antzuola 29 puntu

6. La Salle 8 puntu

Bigarren Erregionala.

Kopa, 1. multzoa.

Axular-Dunboa 0-1

Sailkapena ▶

1. Axular 32 puntu

Jubenilen Ohorezko Maila.

Igoera fasea, 1. multzoa.

Beasain-Martutene 2-2

Vasconia-Aloña Mendi 0-1

Sporting-Elgoibar 6-0

Kostkas-Burumendi 3-0

Sailkapena ▶

1. Kostkas 45 puntu

3. Sporting 45 puntu

7. Vasconia 31 puntu

12. Martutene 14 puntu

Jubenilen Ohorezko Maila.

Kopa, 1. multzoa.

Ordizia-Sto. Tomas 0-2

Sailkapena ▶

1. Bergara 45 puntu

3. Sto. Tomas 39 puntu

Kadeteen Ohorezko Maila.

Igoera fasea, 1. multzoa.

Eibar-Kostkas 2-1

Tolosa-Vasconia 3-1

Reala-Bergara 5-3

Sailkapena ▶

1. Reala 50 puntu

9. Kostkas 18 puntu

10. Vasconia 16 puntu

Kadeteen Ohorezko Maila.

Kopa, 1. multzoa.

Aurrera-Sporting 3-0

Sanse-Urola 2-1

Antiguoko-Arrasate 3-1



Futbola. AMAIA PORTUGAL

Sailkapena ▶

1. Antiguoko 47 puntu

3. Sanse 36 puntu

5. Sporting 34 puntu

Emakumezkoen Liaga.

Igoera fasea, 1. multzoa.

Mondragon-Luberri 1-1

Zarautz-Vasconia 8-1

Sailkapena ▶

1. Zarautz 33 puntu

6. Vasconia 14 puntu

8. Luberri 10 puntu

Emakumezkoen Liga.

Igoera fasea, 2. multzoa.

Aurrera-Intxaurdi 4-1

Añorga-Beti Gazte 1-1

Sailkapena ▶

1. Aurrera 38 puntu

2. Intxaurdi 28 puntu

7. Añorga 11 puntu

SASKIBALOIA

Autonomia Arteko Lehen Maila.

(gizonezkoak)

Ati-Santurtzi 75-73

Sailkapena ▶

1. Tolosa 24 irabazi; 6 galdu

12. Kraft Ati 13 irabazi; 17 galdu

Emakumezkoen Bigarren Maila.

Dosa-Bera Bera Gros 48-51

Tabirako-Easo 54-70

UPV-UPV Atletiko 41-52

Belfast-Zumos 41-68

Sailkapena ▶

1. Easo 23 irabazi; 7 galdu

7. UPV Ati 17 irabazi; 13 galdu

10. Bera Bera Gros 14 irabazi; 16 galdu

16. Belfast 4 irabazi; 26 galdu

ERRUGBIA

Espainiako Kopa.

Bartzelona-Spyro Bera Bera 12-36

Euskadiko Kopa.

Senior Maila.

Independiente-Atletiko 28-5

PILOTA

Herriarteko txapelketa.

Esku pilota.

Andoain-Donostia 1-2

Herriarteko txapelketa.

Pala.

Andoain-Donostia 1-1

Herriarteko txapelketa.

Zesta punta.

Andoain-Donostia

ATLETISMOA

Taldekako Gipuzkoako txapelketa.

Kraft Donostiako Atletiko gizezkoetan eta emakumezkoetan Gipuzkoako txapelketa izan da, asteburu honetan Anoetan. Ander Lopez kadeteak errekorra lortu zuen, pertikarekin 4,10 metroko jauzia egin ondoren. Honetaz gain, Iban Maizak Gipuzkoako Federazioak ematen duen urrezko ezkurra jaso zuen.

KICK BOXING ▶ EUROPAKO TXAPELKETA

Ikuskizunik gabe geratu da Illunbe

Tibia eta peronea hautsi ditu Rodriguezek lehen roundean

ERREDAKZIOA

Mikel Rodriguez, Europako azken txapelkunak ezin izan zuen larunbat gauean txapelkunaren gerrikoa berriz ere jantzi. Lehen round-a hasi bezain laster ostikada jo zion donostiarrak aurkariari eta horren ondorioz, tibia eta peronea hautsi eta borroka bertan behera geratu zen.

Ibrahim Roivili frantsesa izan zen Rodriguezen aurkaria. Borroka gogorra izango zela iragarri zuen Borja Mendioroz entrenatzaileak. Tamalez, Illunben bildu ziren 2.300 ikusleek ezin izan zuten ikuskitzuz nagusiaz gozatu. Izan ere, borroka hasi eta berehala —minutu eta hogeitasegundora hain zuzen— donostiarrak hanka hautsi zuen. Medikuek esan zuten, ebakuntza egin eta gero, lau hilabetez egon beharko du Rodriguezek geldirik.

Borrokan lesionatu arren,



Mikel Rodriguez. IÑAKI ESNAOLA

donostiarrak oraindik Europako txapelketa izaten jarraituko du. Mendioroz entrenatzaileak azaldu zuenaren arabera, «gutxienez lau round eman behar dira txapelketa nor den jakiteko. Mikelek lehenengoan min hartu zuenez, Europako azken txapelketa izaten jarraituko du. Dena den, aurkariak borroka errepikatu dadila eska dezake».

SASKIBALOIA ▶ UPV- DONOSTIAKO ATLETIKO

Emakumezkoen bigarren mailan izango da UPV-Donostiako Atletiko

Aros Leon faboritoari irabazi ondoren (68-69), mailaz igo da

ERREDAKZIOA

UPV-Donostiako Atletikok emakumezkoen bigarren mailara igotzea lortu du. Hiru partida jokatu ondoren, hurrengo denboraldian Espainiako taldeen aurka aritzeko txartela irabazi du.

Azu Muguruzaren neskek partida gogorrek jokatu zituzten Leonen. Lehen norgehiagokan Ibaizabalen aur-



UPV-Donostiako Atletiko.

ka puntu bakarrarengatik galdu zuten, azken segunduan gainera. Igoera lortzeko bidea zaildu zuten, baina bigarren partida, hamar puntuko aldearekin irabazi zuten.

Hirugarren partida ordea erabakigarria zen. Izan ere, Aros Leon faboritoaren aurka jokatu behar zuten eta garai-pena beharrezkoa zuten Atletikokoek. Azkenean 68-69 gailendu ziren donostiarrak.

ERRUGBIA ▶

Aurrera jarraitzen du Spyrok Espainiako Kopan

Spyro Bera Berak ligan zazpi garaipen jarraian lortu ondoren, Espainiako Kopan beste partida bat irabazi du. Igandean, Bartzelonaren aurka jokatu zuen final-laurdenetako partida, eta 12-36 irabazi zuten. Norghegiokoa osoan nagusi izan ziren donostiarrak. Igandean honetan, finaldietako partida jokatuko dute Anoetan Santboi taldearen aurka.

ARETO FUTBOLA ▶

UPVk irabazi du II. Donostia Hiria txapelketa

UPVk II. Donostia Hiria Txapelketa irabazi zuen larunbatean, Xota aurkariari 4-3 irabazi ondoren. Espainiako A mailan jokatzeko talde donostiarrak, eta aurrean maila berean jokatzeko duen taldea izan zuten. Partida bukatzeko minutu gutxi geratzen zirenean, markagailuan atzean zeuden donostiarrak, baina azkenean Xota mendean hartzea lortu zuten.

TRIATLOIA ▶

600 partaide, Donostiako triatlloan

Atzo ireki zen XXII. Donostiako Triatlloan parte hartzeko izena emateko epea, eta egunean berean 350 lagunek bete zuten inskripzioa. Xabier Oianeder antolatzaileak esan zuenez, «gehienez 600 partaide izango dira, lehen-tasuna federatuek izango dute. Horiek 24 euroren truke eman dezakete izena, federatu gabe daudenek ordea 34 euro ordainduko dituzte».

ZINEMA ARETOAK ▶

TRUEBA (Sekundino Esnaola, 2. ▶ 943 271 391. Ikuslearen eguna: astearte)			
▶ El fin de la inocencia	17:00	19:30	22:00
(gaztelerez azpititulatua)			
▶ La influencia	17:00	19:30	22:00

ANTIGUO BERRI (Zarautz 1. ▶ 943 219120. Ikuslearen eguna: astelehena)			
▶ El velo pintado	17:00	19:45	22:30
▶ Piratas del caribe: en el fin del mundo	17:00	19:45	22:30
▶ Spiderman 3	17:00	19:45	22:30
▶ La vida de los otros	16:45	19:30	22:15
▶ La maldición de la flor dorada	17:00	19:45	22:15
▶ Piratas del caribe: en el fin del mundo	18:00	22:00	
▶ Delirious			
(gaztelerez azpititulatua)	22:45		
▶ El buen pastor	16:45	19:45	
▶ Alta sociedad	16:45	19:30	22:15

BRETXA (Arrandegia eraikuntza. ▶ 943 421 371. Ikuslearen eguna: astearte)			
▶ Piratas del caribe 3	16:00	20:00	
▶ Spiderman 3	16:45	19:30	22:15
▶ Piratas del caribe 3	18:00	22:00	
▶ Tu la letra y yo la musica	16:00	18:15	20:30
▶ Spiderman 3	17:45	20:30	
▶ El retorno de los malditos	16:00	18:00	
▶ Alta sociedad	20:00	22:40	
▶ Ellas y ellos	16:00	18:15	

▶ El novio de mi madre	20:30	22:45
▶ Dos rivales casi iguales	16:10	18:15 20:15 22:30

PRINCIPE (San Joan, 10. ▶ 943 421 247. Ikuslearen eguna: asteazkena)			
▶ Mujer invisible	17:30	20:00	22:30
▶ El buen nombre	17:15	19:45	22:15
▶ Piratas del caribe: en el fin del mundo	19:30		
▶ Ciudad en celo	17:00	22:45	
▶ El violín	17:30	19:45	22:30
▶ Half Nelson	17:15	19:45	22:00
▶ ¿Quién dice que es fácil?	17:15	19:45	22:00
▶ Piratas del caribe: en el fin del mundo	17:00	21:30	
▶ La vida en Rosa (Edith Piaf)	16:45	19:30	22:15
▶ Zodiac	16:45	20:00	
▶ Borrachera de poder	17:00	20:00	22:15

CINEBOX (Urbil gunea - Usurbil. ▶ 943 376 557. Ikuslearen eguna: astelehena)			
▶ Piratas del caribe 3	16:00	18:00	19:45
▶ Piratas del caribe 3	16:30	19:15	21:30
▶ Zodiac	16:00	19:00	22:00
▶ El novio de mi madre	16:00	18:00	20:00 22:00
▶ El retorno de los malditos	18:00	20:00	22:00
▶ Spiderman 3	16:00	19:00	22:00
▶ Premonition	19:00	22:00	
▶ La telaraña de Carlota	16:00		
▶ Piratas del caribe 3	22:30		

AGENDA ▶

GAUR (ASTEARTEA 29)

Hitzaldia. Donosti Ereski Kultur Elkarteak antolatutako Pirinio Mendebaldeko kultur bilakaerari buruzko jardunaldien baitan, Xavier Peñalver Aranzadiko arkeologoak *Piriniotako mairubartzak* hitzaldia emango du. Arrasate kaleko Kutxa aretoa 20:00etan.

Jolasak. Mahai jolasak, beis-bola, karaokea eta beste zenbait jolas Martuteneko Gaztelekuko Kultur Gunean. 20:00etan.

Antzerkia. Txontxongilo taldeak, *Eman eta gero* ikuskizuna emango du Egiako Gastesenan, 19:00etan.

BIHAR (ASTEAZKENA 30)

Dokumentala. Elba Martinez iruindarrak zuzendutako *Merienda de negros* dokumentala emango dute. Leopoldo Maria Panero poetari buruz da dokumentala. FNAC saletxean, 19:00etan.

Hitzaldia. ESKE taldeak anto-

latuta Mikel Aramendi kazetariak *Nazioarteko aktualitatea* hitzaldia emango du Ernest LLuch kultur etxean, 17:30etik aurrera.

Musika. Easo Musika Eskolako ikasleek kontzertua emango dute Victoria Eugenia Antzokia, 20:00etatik aurrera.

Musika. La Mala Rodriguez eta Jaula de Grillos taldeek kontzertua emango dute Egiako Gastesenan. Aurretik Donostiakluba taldeak joko du. 20:00etan.



La Mala Rodriguez.

ERAKUSKETAK

Sin fin, islaran isla. Jose Ramon Amondarainen lanak ikusgai. Koldo Mitxelenako erakusketa aretoa, ekainaren 16 arte.

Isidoro Guinea eta dekorazio arteak. Dekorazio arteak biltzen dira erakusketan. Koldo Mitxelenako Ganbara aretoa ekainaren 23 arte.

Isabel Muñoz. Argazkilariaren bilduma ikusgai dago Kubo aretoa, ekainaren 24 arte.

Klaus Ohnsmann. Artista alemaniarren lanak ikusgai daude Echeberria galerian, maiatzaren 29 arte.

Idoia Unzurrunzaga. *Hezugabeak* argazki erakusketa Ekain Arte Lanak galerian. Neurri ertain eta handiko argazkiak. Zabalik ekainaren 20 arte.

Animalien idazketak. Iberiar penintsulako ekosistemak eta animaliek uzten dituzten oinatz eta seinaleak ikus daitezke erakusketa honetan. Egiako Parkean, uztailearen 29 arte.

Günter Grass. Idazle alemaniarri buruzko 30 irudi eta hainbat idatziekin osatutako erakusketa zabalik dago. Liburutegi Nagusian ekainaren 23 arte.

Pintura. Tereko Zaballak marraztutako erretratuak ikusgai, Alga arte galerian.

HITZALDIA ▶

Erotismoari buruz hitzaldia antolatu du Bagerak

Bagera Donostiako Euskaltzaleek Elkarteak antolatuta, gizon-nezkoen eta emakumezkoen erotismoari buruzko hitzaldia emango du bihar Sexune Elkarteak kideek. Gizakien sexualitatean kulturek duten eragina aztergai izango da.

▶ **Non.** Koldo Mitxelenak Kulturunean.

▶ **Noiz.** Bihar, 19:30ean.

DANTZA ▶

Sara Baras dantzariaren 'Sabores'

Sara Baras dantzariaren eskutik, *Sabores* ikuskizunak flamenko sentsaziotan barrera ibilaldia egiten du. *Tango, seguriya, zambre, alegria* eta *taranto* dantza motak dira ikuskizunaren atalak.

▶ **Non.** Kursaal Jauregian.

▶ **Noiz.** Gaur eta bihar, 20:00etan.

TELEFONO ZENBAKIAK ▶

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Gurutze Gorria	943 222222
DYA	943 464622
Itsasoko Gurutze Gorria	943 431507
Farmaziak	943 429117
Suhiltzaileak	080

OSASUNA

Larrialdiak	943 461111
Donostiako ospitaleak	
▶ Amara	943 007400
▶ Arantzazu	943 007000

▶ Gipuzkoa	943 006000
▶ Psikiatria	943 007213
▶ Larrialdi orokorrak	943 007053
Poliklinika	943 309400

POLIZIA-TRAFIKOA

Ertzaintza	943 538606
Udaltzaingoa	092
Udal garabia	943 320658

MATXURAK

Iberdrola	901 202020
Donosti Gas	943 445090/91

GUARDIAKO FARMAZIAK ▶ GAUR

EGUNEZ (09-00-22:00)

- ▶ **E. Zelaia.** Altza pasealekua 57 (Altza). 943 352570
- ▶ **J. M. Blasco.** Karkizano 12 (Gros). 943 272793
- ▶ **Ezquerria - Uriarte.** Benta Berri plaza 2 (Antigua). 943 213704
- ▶ **Loidi - Navarro.** Loloia 8 (Erdialdea). 943 421027

GAUEZ (22:00-09:00)

- ▶ **A. R. Ruiz de Azua.** San Martin 14 (Erdialdea). 943 420439



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

hilberriak ▶

Joxepa Lopetegui Intxausti

ANDREA
(Hilarior Lizarribaren alarguna)

ATZO hil zen, 98 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Seme-alabak: M^a Nieves eta Joxe Usandizaga, Jose Antonio eta Garbiñe Moraiz; bilobak: Jatsu eta Valerie, Leire eta Xabier, Xabier eta Nerea, Jon, Igor eta Valeria; birlobak: Amaia, Eñaut, Mikel, Asier, Joan, Unai, Lorena eta Larraitz; ezkon anai-arrebak: Francisca, Joxepa, Juli, Joakin eta Juanita, Joxe; zaintzailea: Lucia Fernandes; ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Ibarako SAN BARTOLOME parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Nafarroako etorbidea 1-2 esk.
oharra ▶ Gorputz laguntza famili artean egingo da.

TOLOSAN, 2007ko maiatzaren 29an



Milagros Larrañaga Arrizabalaga


(Soziolinguistika Klusterreko Maite Egaña lankidearen ama)

Une latz hauetan
bat egiten dugu
famiaren saminarekin





Adin guztietako lagunek hartu zuten parte lasterketan. i.g.



Maximo Giroto baino ile gehiagoko txirrindularia. i.g.

XXIII. Barazki Sorta Saria

AMARA GOIZUETA ▶ Larunbatean egin zen duela hogeita hiru urte bi lagun arteko apustu gisa hasi eta zikloturista karrera herrikoia bihurtu den lasterketa



Erratza autoaren aurretik abiatu ziren azken lagunek patxadaz ekin zioten Goizuetaraino eraman zituen ibilbideari. i.g.

IBON GAZTAÑAZPI

Duela 23 urte, bi lagun txirrinduzale eta txirrindulari bildu, eta komeni baino basoerdi gehiago edanda muturrak berotu ondoren, apustua egin zuten. Lana: Amaran bizikleta hartu eta Goizuetara lehenbailehen iristea. Saria: azenario, perrexil, azelga eta beste barazki freskoz osatutako sorta mardula.

Ikusmin bizia sortu zuen bi adiskide tematuaren arteko lehia gordin eta krudel hark, eta hurrengo urterako, jokoan zegoen sariak itsututa, kuadrila osora zabaldu zen Goizuetako helmugara aurrena heltzeko grina. Gainera, probari itzuli handien sona eman nahian, karreristak bi taldetan banatu eta Aranoko gainean derrigorezko *point d'avitallament* bat jartzea erabaki zuten. Baina indar hartzeko gunean, Frantziako Tourrean ez bezala, jatekorik ez zitzairen eman txirrindulariei. Kalimotxoa edo garagardoa soilik. Nahitaez.

Urteak joan ahala, lehiaketaren ospeak, sariak, parte hartzeak eta karrera ondorengo Goizuetako girotxoak gora egin zuten, eta Amara Berri Txirrindulari Elkarteko kideek esan dutenez, ehun txirrindularitik gora parte hartu duten edizioak ere izan omen dira. Baita Goizuetako tabernetako garagardo eta ardo kupelak bukatu direnak ere. Guardia Zibilez inguratuta egindako sari banaketa ekitaldi gogoangarriak ere bai.

Larunbatean egin zen XXIII. Barazki Sorta Saria. Hauteskunde bezperako hausnarketak eguneko buruko minak eraginda akaso, partaidetza urri samarra izan zen. Baina, hori bai, kategoria handikoa. Handik ziren besteak beste, Maximo Giroto, Piotr Ugrumov, Claude Criquelion eta Giancarlo Perini. Bejondeiela!

	IES Hernani BHI A. Iturriraga - Santa Barbara sarea 216 - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271 K. LABAKA - Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 552958 FAXA: 943 330550 e-mail: inst@iturbas@hernanibhi.com www.hernanibhi.com	
ELEKTRIZITATEA Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila) Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)	MEKANIKA Mekanizazioa (Erdi Maila) Proiektu Mekanikoen Garapena (Dibulazio mekanikoa) (Goi Maila)	
AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 7ra		